

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

48/2020 Foru Agindua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzen baita Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Salburuko 7 eta 8 sektoreetako Konpentsazio Batzordean egindako aldaketa, hots, Zuzendaritza Kontseiluko kide bat aldatzea

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2020ko urtarrilaren 27ko sarreara data duen idazki baten bidez, Vitoria-Gasteizko Udalak egiaztagiri bat bidali du, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Salburuko 7 eta 8 sektoreetako Konpentsazio Batzordeko idazkariak egina, Zuzendaritza Kontseiluko karguak berriro direla jakinarazteko, Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskriba dadin.

Bigarrena. Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren urriaren 4ko 956/2001 Foru Aginduari jarraituz, Salburuko 7 eta 8 sektoreetako Konpentsazio Batzordea Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan inskribatu zen.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onetsi zuen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren 164. artikuluan xedatzen da ezen, konpentsazio batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen aldaketak, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkiola, diharduen administrazioaren bitartez.

Vitoria-Gasteizko Udalak egindako jakinarazpenari erantzen zaio 2019ko abenduaren 17an egindako egiaztagiria, zeinak jasotzen baitu HAPOko Salburuko 7 eta 8 sektoreetako Konpentsazio Batzordearen Batzar Orokorreko 2019ko azaroaren 28ko bilkuran hartutako erabakia. Bilkura horretako gai zerrendaren lehenengo puntua zen Zuzendaritza Kontseiluko kideak aldatzea, eta erabaki horren bidez jakinarazten da Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi duela eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu dela.

Bigarrena. Aplikagarria da Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortu eta arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa.

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskriba dadila Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Salburuko 7 eta 8 sektoreetako Konpentsazio Batzordean egindako aldaketa, hots, Zuzendaritza Kontseiluko kide bat aldatu da: Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi du eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu da.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO